ATENTATUA. Poliziaren arabera, titadinez egina zegoen

Lehergailu batek eztanda egin du Lekunberriko Nafarroako Kutxan

ETAren izenean, SOS Nafarroan abisua eman zuten aurretik



JESUS DIJES/EFE

Kalte material nabariak eragin zituen Lekunberriko Aralar kaleko Nafarroako Kutxaren kutxa automatikoaren ondoan jarritako lehergailuak.

Erredakzioa | **IRUÑEA**

Ustez titadinez egindako lehergailu batek Nafarroako Kutxak Lekunberrin (Nafarroa) duen egoitzan kalte material handiak eragin zituen bart gauen. ETAren izenean SOS Nafarroara egindako dei batek lehergailua eztanda egiteko prest zela jakinarazi zuen aurretik.

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen orkezkaritzak emandako datuen arabera, Lekunberriko Aralar kaleko Nafarroako Kutxaren kutxa automatikoa zartatu zuen lehergailua lehergai plastikoz —ustez Bretainian lapurtutako titadinez— eta gasolinaz egina zegoen. Titadinez eginiko lehergailua dela baieztatzen bada, material hori horrelako ekintzetarako erabiltzen den lehen aldia izanen da.

Iturri berberen esanetan, gizonezko ahotsa zuen norbaitek ETAren izenean SOS Nafarroara telefonoz deitu zuen bart gauean, Lekunberrin aurki lehergailu batek eztanda eginen zuela esateko. Herrian dagoen kuarteleko Guardia Zibilak telefono deiak zehaztutako tokia hesitu zuen, eta Aralar kaleko kutxa automatikoaren ondoan «susmagarria zen» plastikozko poltsa bat zegoela ohartu zen. Abisua jaso eta ordu erdira egin zuen eztanda lehergailuak.

Leherketak ez zuen zauriturik eragin, baina kalte materialak nabariak izan ziren. Kutxa automatikoaren etxebizitzaren kristalak, paretak eta habe nagusiak kalteak izan zituen. Halaber, pareko etxeko kristalak ere hautsi zituen zartaketak.

KALE ERASOAK. Donostian, Portugaleten, Azpeitian eta Arrigorriagan

Bi banketxeri, Telefonicaren bulego bati eta aseguru etxe bati eraso diete

Agentziak | **BILBO**

Bi banketxeri, Telefonicaren bulego bati eta aseguru etxe bati eraso egin zieten herenegun gauean eta atzo goizaldean Gipuzkoan eta Bizkaian, Ertzaintzako iturrien arabera.

Lehenengo kale erasoa herenegun gaueko hamaikak eta hogeian gertatu zen, Donostian, Banco Santanderrek Larratxo kalean duen kutxa automatikoaren aurka. Erregaia bota eta su eman zioten. Kutxa automatikoa hondatuta geratu zen.

Beste hiru kale erasoak ordu bertsuan gertatu ziren, atzo goizaldeko ordu bi eta erdiak aldera.

Azpeitian (Gipuzkoa) molotov koktel batzuk jaurti zituzten Telefonicaren bulegoaren aurka. Suak hartu zuen eta suhiltzaileek itzali zuten. Altzarietan kalteak eragin zituen suteak.

Arrigorriagan (Bizkaia) bi lagunek Seguros Vitalicioren egoitzako erakusleihoetako kristalak hautsi zituzten, horretarako bi enbor erabiliz.

Portugaleten (Bizkaia), bi kaputxadunek erregaia jaurti zuten BBVAk Gregoriano Uzkiano kalean duen kutxa automatikora, baina surik ez zuen hartu.

LABURREAN

Euskal presoen senideak Fresnesko espetxeko zuzendariarekin bilduko dira gaur

Senideak-Gureak eta Koordinaketa elkarteetako ordezkaritza bat Fresnes frantziar presondegiko zuzendariarekin bilduko da gaur. Tomas Karrera, Elixabete Azurmendi eta Garbiñe Erasok 15:00etan dute hitzordua, euskal presoek Frantziako presondegietan eta bereziki Fresnesko kartzelan pairatzen duten egoeraren berri emateko. Egun Juan Luis Agirre Lete dago Fresnesen. «Fresnes presondegiratze baldintza okerrenak sinbolizatzen dituen presondegia» dela salatu du Senideak-Gureak elkarteak. Presondegiko ospitalean ere tratu txarrak izaten direla adierazi dute, Torturaren Kontrako Frantziar batzordeak uztailaren 17an argitaratu txostenean oinarriturik.

Blancoren auzian auzipetu dutela jakinarazi diote Ibon Muñoari

Ibon Muñoa preso eta HBko zinegotzi ohiari Miguel Angel Blanco PPko zinegotziaren bahiketa eta hilketagatik auzipetu egin dutela jakinarazi zion atzo Juan del Olmo Entzutegi Nazionaleko epaileak. Beste auzipetuak (Xabier Garcia Gaztelu, Irantzu Gallastegi) Frantziako espetxeetan preso daudenez, ez ziren izan atzo Entzutegian.

Bartzelonako Adierazpeneko alderdiak Bilbon bilduko dira bihar

Bartzelonako Adierazpenaren alderdi sinatzaileak –EAJ, CDC, UDC eta BNG– Bilbon bilduko dira bihar, testu horren «presentzia soziala dinamizatzeko eta bultzatzeko». Alderdiotako ordezkaritzak Xabier Arzalluz, Artur Mas, Xose Manuel Beiras eta Josep Antoni Duranen lehendakaritzapean bilduko dira, Sabin Etxean.

Burujabetzaren Aldeko Desobedientzialarien Agiria 85 lagunek sinatu dute orain arte

Desobedentzialarien Agiria beste 15 lagunek sinatu dutela eta, oraingoz guztira 85 lagunen atxikimendua jaso duela jakinarazi zuten Burujabetzaren Aldeko Desobedientzialariek atzo. 85 pertsona horiek espainiar edo frantziar nortasun agiria Bruselara bidaltzeko konpromisoa hartu dute. Agiriaren aurkezpenean iragarri zutenez, 100 sinadura biltzean taldearen lehenengo biltzarra egingo dute. Burujabetzaren aldeko «ekintza zuzen ez-bortitzak» egiteko asmoa dute.

• ETXEBIDE • Gipuzkoa •

EUSKO JAURLARITZAK 2000.URTEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPEN KANPAINARI DAGOZKION ETA ZUZENKETAREN BAT BEHAR DUTEN ESPEDIENTE GUZTIEN ZERRENDAK KALERATU DITU

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, 2000. urteko Etxebizitzen sustapen kanpainari dagozkion eta zuzenketaren bat behar duten espedienteen zerrendak kaleratu ditu Gipuzkoako Lurralde Historikorako.

Zerrenda hauek Gipuzkoako Etxebizitza Ordezkaritzan izango dira ikusgai zehaztutako epean. Eskatutako zuzenketak egin ezean espedientea bertan agertzen diren datuen arabera artxibatuko edo ebatziko da. Informazio gehiago lortu ahal izateko Etxebideko 012 telefono zenbakira deitu dezakezu.

Zerrenden agerpen eta zuzenketa epea

Kontsulta epea: Uztailaren 19tik abuztuaren 1era, biak barne
Lekua: Gipuzkoako Etxebizitza Ordezkaritza
(Andia 13, Donostia)
Ordezkaritzaren ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00.

ETXEBIDE
SERVICIO VASCO DE VIVIENDA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

Tfnoa. 012 www.euskadi.net/etxebide